

# SEXUA LITATEAREN EZTABAIDA

# SEXUA LITATEAREN EZTABAIDA

## Aurkibidea

|                                                                           |    |
|---------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. Marko teorikoa .....                                                   | 5  |
| 1.1 Sexu-genero sistema: sexua eta generoaren<br>eraikuntza soziala ..... | 5  |
| 1.2 Sexualitatearen eraikuntza soziala:<br>sexu ugalketaren ordena .....  | 5  |
| 2. Errealitatea aztertzen .....                                           | 8  |
| 3. Eredu heterosexista<br>hegemonikoa gaingaituz .....                    | 11 |
| Bibliografia.....                                                         | 16 |
| Pelikulak, dokumentalak .....                                             | 17 |



# SEXUA LITATEAREN EZTABAIDA

“ La sexualidad rebasa al cuerpo y al individuo: es un complejo de fenómenos bio-socio-culturales que incluye a los individuos, a los grupos y a las relaciones sociales, a las instituciones, y a las concepciones del mundo -sistemas de representaciones, simbolismo, subjetividad, éticas diversas, lenguajes-, y desde luego al poder. La sexualidad es a tal grado definitoria que organiza de manera diferente la vida de los sujetos sociales, pero también de las sociedades. En ese sentido, la sexualidad es un atributo histórico de los sujetos, de la sociedad y de las culturas: de sus relaciones, sus estructuras, sus instituciones, y de sus esferas de vida. ”

**Marcela Lagarde**



## Sarrera

Eskuartean (edo pantailan) duzuen testu hau hausnarketarako erreminta bat da. Ez dugu ezer berririk asmatu, soilik bildu, ordenatu, marko bat eman... Ezer berria ez den arren, asko kostatu zaigu borobiltzea. Zenbat eta denbora gehiago pasatzen utzi, orduan eta ekarpen zein ideia gehiago. Ideia horietako asko taldean eztabaidatu ondoren agertu dira, beste batzuk irakurri geniolako honi edo beste hari. Horregatik lan kolektiboa da. Milesker guztioi.

Bizirik dagoen dokumentua da. Zaila da ixtea. Ezinezkoa da dena biltzea. Horregatik zabalik dagoen testua da. Osatzeko dago. Pentsatzen jarraitzeko. Hausnartzen jarraitzeko. Pertsonala eta politikoa uztartzen jarraitzeko.

Horregatik, tarte bat topatu eta irakurri testua. Ondoren eztabaidatu, galdetu, ezeztatu... ZABALDU!



# Marko teorikoa

## 1.1. Sexu-genero sistema: sexua eta generoaren eraikuntza soziala

“Honek gizon eta emakumeen arteko dominazio/botere harremanak eraikitakoak zirela ulertzea erraztu zuen; hau da, sistema batek egituratzen zituela, eta ez ezaugarri *naturalek*”

1949.urtean Simone de Beauvoirek “Le deuxième sexe” (Bigarren Sexua) liburuan *-Emakumea, egin egiten da-* adierazi zuen. Ideia horrekin emakumearen eraikuntza sozialaz ari zen, eta beranduago, 70. hamarkadan, teoria feministak *genero* kontzeptua erabiltzen hasi ziren, emakumetasuna eta gizontasuna, jendarteak, sexuaren gainean ezarritako ezaugarri multzo bat bezala ulertuz.

Horrela, sexua, arra eta emea desberdintzen dituen ezaugarri biologikoen multzoa bezala, eta generoa, sexuaren gainean sortutako eraikuntza kulturaltzat bezala ulertzen hasi ziren. Honek gizon eta emakumeen arteko dominazio/botere harremanak eraikitakoak zirela ulertzea erraztu zuen; hau da, sistema batek egituratzen zituela, eta ez ezaugarri *naturalek*.

80. hamarkadan hasi eta 90. hamarkadatik aurrera indarra hartuko duen ikuspegi feminista berriak, sexu eta generoaren adiera hau kritikatu du eta sexua ere (ez soilik generoa), eraikuntza soziokulturala bezala ulertzen hasiko da. Ikuspegi honek, sexua, biologiaren (kromosomak, zelulak, gonadak, hormonak, hipotalamo-hipofisia, genitalak...), ikaskuntzaren, heziketaren eta kulturaren bidez definitzen den kategoria bezala ulertzen du. Honek errealitatea ulertzeko baliabide berriak eskaintzen dizkigu, continuum-aren ideia azaltzen da non, muturreko sexu bi direla baztertu eta intersexualitatearen errealitatea azaltzen zaigun. Errealitate honek ezaugarri genital, kromosomiko, gonadal... etab. guztiak, aurkakoak diren bi kategorietara mugatu beharrean, continuum batean kokatzen ditu. Arra eta emea kategorietara mugatu beharrean, continuum honetatik eratorri daitezkeen sexu eraikuntza anitzak ulertzen.

Beraz, bai generoa baita sexua ere, eraikuntza soziokulturala direla baieztatu genezake. Eguno jendartea, eredu dikotomiko honen gainean eraikia da, eta jendartearen instituzio ezberdinek (zientzia, komunikabideak, hezkuntzak...) eredu dikotomiko hau erreproduzitzen dute diskurtso ezberdinen bitartez.

Ikuspegi honetatik errealitatea aztertuz gero, sexualitatearen eremua, eredu bitar eta hierarkiko honen gainean eraikita dagoela ikus dezakegu, sistema patriarkalari erantzuten dion sexualitate ereduak, emakumeen gorputzen kontrola eta menpekotasuna mantentzea helburu duena.

## 1.2 Sexualitatearen eraikuntza soziala

Sexualitatea pertsonon beste hainbat dimentsioren moduan, eraikuntza sozial bat da, gaur egun bere oinarrian, ugalkortasunera bideratutako sexualitatearen eraikuntza egonik. UGALKORTASUNAK sexu, sexualitate eta praktika ugalkorrak behar ditu sistema patriarkala iraunarazi ahal izateko, hau da, gorputza, desira eta plazera ugalketaren esanetara bideratuta egongo dira, ugalkortasunaren parametroetan besterik eraikiz.

“Ugalketan oinarritutako eredutik kanpo dauden identitate eta praktika guztiak gutxituak izango dira, estigmatizatuak”

## Sexu Ugalketaren Ordena (Ugalketan oinarritutako sexualitatea eredua):

Gaur egungo jendartean ugalketan oinarritutako sexualitate eredua da normala, ordenaren barruan dagoena. Eredu hegemonikotik at sortzen diren sexualitate eredu anitzak, ez normalak, patologikoak, kaotikoak ... izanik. Ondorioz, ugalketan oinarritutako eredutik kanpo dauden identitate eta praktika guztiak gutxituak izango dira, estigmatizatuak.

### Zer da ordena?

Gauzak ordenan daude *bere lekuan* daudenean: hierarkia printzipioa.

|                   |                                                           |
|-------------------|-----------------------------------------------------------|
| MAILA GORENEKOA   | ORDENAREN BAITAN:<br>normala                              |
| AZPIKOA, MENDEKOA | ORDENATIK KANPO:<br>desordena: ez normala,<br>patologikoa |

Ugalkortasuna irizpidetzat duen sexualitateak ordena eta menpekotasuna sortuko du; ugalketa ez ugalketaren gainetik jarritz eta ondorioz gorputz ugalkorra, desira ugalkorra eta plazer ugalkorra gainontzeko adierazpenen gainetik egonik, hemendik kanpo emango diren moduak eta adierazpen anitzak ez normalak, gutxituak izanik.



**Desira ugalkorra.** Jendarte heterosexual eta heterosexuatzaile baten beharra du ugalketara bideratutako desirak, hau da, emakume eta gizonezko baten beharra du; bikote heterosexualak, aldi berean heterosexuatzaileak (seme-alaba heterosexualak sortzen dutenak) direnak. Sozializatzea, heterosexualizatzea litzateke, ongi sozializatutako pertsona heterosexuala izan beharko litzateke eredu honen arabera. Jendartea osatzen dugunok subjektu heterosexuatzaileak gara, sistemaren parte eta eragile izanik.

Desira ugalkorra ondorengo irizpideak eraikitzen ditu:

- *Heterosexualizazioa.*
- *Ezkontidetasuna (conyugalización):* ugalketara bideratutako desira izango da bidezkoa edo zilegi.

Adb: emakume heldu batek ezin du nerabe bat desiratu.

- *Generizazioa:* heterosexual zehatzak eraikiz; emakumezko eta gizonezkoak. Gizona generoz maskulinoa da eta emakumea aldiz balio femeninoei erantzungo lioke. Aurreko puntuan azalduta geratu den moduan, generoa eraikuntza historiko bat da, desirari dagokionez emakume desiratuak eta desiratzen duten gizonak eraiki ditu generizazioak. Bai emakume eta gizonak subjektu eta objektu izan beharko lirateke. Historikoki desiraren eraikuntza objektu (desiratu izateko gaitasuna) eta subjektuen (desiratzen duenak) arabera eraiki da. Adb: ninfomana; desiratzen duen emakumea. Gizonezko ninfomanoa gizonezko “normala” da.

**Plazer ugalkorrak,** ugalketara bideratutako praktikak indartzen eta lehenesten ditu, hortaz praktika hegemonikoa KOITOA izango da. Koitalizazio prozesua KOITOEZENTRISMOA bidez aurrera eramango da, hau da, jendarte Koitozentrikoak eraikiz.

**Gorputz ugalkorra,** hau da, gorputza ugalkortasunaren menpe badago, gorputza-ren genitalizazioa emango da. Gainontzeko gorputz atalak bigarren mailakoak izango dira, gorputz genitalizatuak hegemonia du: dena genitalen arabera ordenatua dago.

Gizonezkoaren gorputza eta genitalak erreferentziazko gorputza eta genitalak izango dira. Emakumezkoen gorputzak ez du bat egiten sexualitate ugalketa ereduarekin, klitoriaren funtzioa ez da ugalketa, honengatik hain zuzen ere, klitoria baztertua eta gutxiagotua egon da mendeetan zehar (zenbait mediku-sexologok baginaren orgasmoa aldarrikatu zuten, honek ugalketa ereduari erantzuten baitzion).

## Hegemonikoa

Ugalketan oinarritutako sexualitate eredu-ordena.

Ugalketan oinarritutako  
DESIRA



HETEROSEXUALIZAZIOA  
GENERIZAZIOA  
FAMILI UNITATEA

Ugalketan oinarritutako  
PLAZERRA



KOITOA  
KOITOEZENTRISMOA

Ugalketan oinarritutako  
GORPUTZA



GENITALIZAZIOA  
FALOEZENTRISMOA



“Emakumeen sexualitatearen eta gorputzen kontrola ezarriko dute: monogamia, familia eredu patriarkalak, estigma, maitasun erromantikoa... etab. bitartez”

## Errealitatea aztertzen

Esan dugun bezala, soilik bi sexu eta bi genero onartzen dituen sisteman bizi gara, hauen arteko hierarkizazioan eta bata bestearen menpekotasunean oinarritutako jendartean. Ezin ahaztu honek bizitzaren eremu guztiak zeharkatzen dituela, bi sexu eta bi generoen eskemak eta hauen arteko botere harremanak, sistema ekonomiko neoliberalarekin artikulatuz, gure jendartea definitzen duten oinarritzko egiturak baitira.

Beraz, sexualitateari dagokionez, eredu neoliberal eta patriarkalek eratorritzen den eredu dugu: harreman koital heterosexuala. Harreman mota hau, kapitalismoak bere biziraupenerako, hau da, lan-eskua erreproduzitzeko (produktuak) beharrezkoa duen eredu sexuala izango da. Eredu honek sexualitate eredu ugalkorra eta ez ugalkorraren arteko gatazka ekarriko du. Era berean heterosexualitatea eta homosexualitatearen artekoa. Sexualitate ugalkorra zein heterosexualitatea hierarkiaren goiko partean kokatuko dira.

Sexualitate eredu honek kapitala eta patriarkatuaren aldetik “produktuen” erreprodukzioaren gaineko kontrola ekarriko du. Horretarako emakumeen ugalketa gaitasuna kontrolatu beharreko elementua izango da, beraz emakumeen sexualitatearen eta gorputzen kontrola ezarriko dute: monogamia, familia eredu patriarkalak, estigma, maitasun erromantikoa... etab. bitartez. Aipatutako sexualitate eredu hau (Ugalketan oinarritutako sexualitate Ordena) ideologikoki legitimatuko dute, harreman sexual koitala naturalizatuz eta sakratutzat jotz. Hau guztia hornitzeko familia eredu patriarkala eta maitasun erromantikoaren ideiak gure gorputzetan ezarriko dituzte, arauak askotan bertan izkiriaturik geratuko dira naturalak direnaren aitzakiarekin.


Beraz, sistema honetatik eratorriko den eredu sexualaren ezaugarriak hauek dira: sexu bipolarren gainean eraikia, heterosexuala, genitala eta maskulinitatearen plazerera bideratutakoa.

Eredu hau erreprodukzioari lotuta agertzen denez, heterosexualitatea “naturala” lotuta agertzen da, eta homosexualitatea, “naturaren” desbideratze bat bezala ulertzen da.

Idea hauek, sexualitatearen naturalizazioa eta biologizazioa ekartzen dute, bultzada primarioei eta senari lotuta balego. Sexua, sexualitatea eta erotikaren dimentsio kulturala, ikasia, hortaz, eraikia izana, ukatzen da.

Sexuen eraikuntza dikotomikoaren ondorioz ere, sexualitate maskulinoa eta femeniinoa ezberdintzen dira. Sexualitate maskulinoa behar biologiko, falikoa eta bultzadari oso lotuta agertzen da; femeniinoa berriz, emozionalari, afektibitateari eta gorputzaren globaltasunari (desgenitalizatuagoa) lotua agertzen zaigu. Eredu honek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak erreproduzitzen.

Sexualitate eredu hegemoniko honek, modelo maskulino patriarkalaren beharrei erantzuten dio, maskulinitasunaren plazerera zuzenduta, plazer modu zehatz bati zuzenduta: azkarra, genitala, bat-batekoa... Sexualitate eredu heterosexista (falikoa) honek sexualitatea gauza zehatz batetara mugatzen du: bi pertsonen artekoa, sexu zehatzetakoak, praktika zehatz batzuekin, denbora eta leku zehatz batean, kitzikapen maila zehatzarekin, adin zehatz batekin, sentsazio eta sentimendu zehatzekin...



Sexu-hierarkia: lerro banatzailearen  
kokalekurako borroka  
(Rubin, 1984:140).

Hortaz, sexualitate eredu hegemonikoak sexualitatea bizitzeko modu bakarra onartzen du, sexualitate “ona” eta “txarra” definituz. Sexualitate onaren barruan, heterossexuala, bikote egonkorarekin, koitozentrikoa, etxean eta ohean egiten dena kokatzen da. Beste guztia sexualitate “txarraren” eta patologikoaren aldean kokatuz: homosexualitatea, adin ezberdinen artekoa, objektuekin, animaliekin, bi pertsona baino gehiagorekin, promiskuitatea, pornografikoa, diruaren truke, kalean egitea... Honek ere praktiken zilegitasuna dakar, batzuk zilegi dira, modeloari erantzuten diotenak, eta besteak ez. “Ona” ez den guztia, modelotik at gelditzen dena, estigmatizaturik dago.

Hona hemen Gayle Rubin-ek, “*notas para una teoría radical del sexo*” artikuluan proposaturiko grafikoak sexualitate ona eta txarraren banaketa eta beraien arteko mugak: “hierarkia sexuala” izena ematen dio berak antolakuntza honi.


Praktika desberdinek identitateak sortzen dituzte: sexu praktiken arabera baita ere emakume identitateak sortzen baitira: praktika onak burutzen dituztenak eta praktika txarrak burutzen dituztenak. Lehenengoek emakume ona eta puruaren rolaekin bat egingo dute, eta bigarrenek normatik kanpo burutzen diren praktika estigmatizatuak egiten dituztenak, emakume ez-garbien rolean agertuko dira: emagalduek, putak, zikinak, beroak, lotsagabeak, txoriburuak... Azken hauek emakume onaren rola alde batetik, eta feminitatea bera ere jarriko dituzte kolokan aldi berean.

“Gayle Rubin-ek, “*notas para una teoría radical del sexo*” artikuluan proposaturiko grafikoak sexualitate ona eta txarraren banaketa eta beraien arteko mugak: “hierarkia sexuala” izena ematen dio”

Bestetik ere, eredu hau sakratutzat jotzen da: bizitzeko ezinbesteko, garrantzi handiko elementu... Sexualitate eredu hau ez praktikatzean, estigma ematen delarik. Sexu praktika hauek derrigorrez burutu beharreko praktikak izatera pasa dira - “Noiztik ez duzu txortan egin?”, “Aizu! behar duzuna larrua jotzea da!” - eta halakoak edonon entzuten ditugaririk. Sexualitate eredu honetatik at dagoena normaltasunetik kanpo egongo litzateke eta kasu batzuetan ere ez da sexualitatea bezala ulertzen (harreman heterosexual koitela ez diren praktikak).

Gaur egun ere, homosexualitatearen asimilazioa ematen ari dela esan dezakegu. Sistema heterosexuatzailean, homosexualitatea eredu heterosexual hegemonikoaren “normetan”/“egituran” sartzen saiatuz: bikotean, eredu erromantikoan, familia ereduan, ezkontzan, funtzio eta rol banaketan, kontsumoan. (Gayle Rubin-en hierarkia sexualaren kontzeptuan haxe “sexualitate ona” deitzen duenaren parametroetan sartuko lirateke, nolabait sistema iraunarazi egiteko baliagarria delako).

Sexualitatea bizitzeko moduan askeak garenaren ideia dago, baina, askatasuna zer den eta ze puntutaraino gure praktikak ez dauden sexualitate eredu normatiboaz baldintzatuta gure buruei galdetu beharko genieke.



Sexu-hierarkia: zirkulu magikoa versus kanpoko mugak (Rubin, 1984:139).



“Nola ez atzeman ekonomiarekin, kasu honetan, kapitalismoarekin, duen harreman zuzena? Sexualitateak lotura zuzena du beste jendarte egiturekin eta lotura horrek pertsonen bizitzaren alderdi ezberdinak baldintzatzen ditu”

## Eredu heterosexista hegemonikoa gaindituz (hacia otras sexualidades)

Feministok, ezin dugu gai honek daukan garrantzia politikoa ukatu. Are gehiago, guk nola ulertzen dugun, eta guretzako nolakoa izan beharko lukeen hausnartu eta definitu behar dugu. Etengabeko errebisioekin. Helmuga edo iparra ez galtzeko. Norantz goazen zehazteko.

Askotan sexualitatea diskurtso esentzialistekin nahaspilatu da. Txostenean zehar aipaturiko beste hamaika elementuez gain, gorputzak, fluxuak, plazera, desioak eta abar inplikatzeko dituen ere, erraz lotu izan da naturarekin, berezko gertakariekin. Eztabaidatu ezin daitekeenarekin. Pentsatu ezin daitekeenarekin. Inpultsoak. Sena.

Badira hau eraldatzeko lana egin duten autore zein militante feministak. Halere Bilgune feministatik, zenbaitetan, “sexualitate askea” exijitu izan dugu (eta defendatzeko jarraituko dugu) gure diskurtso, komunikatu zein manifestuetan. Baina “aske” kontzeptua ere, definitu behar den zerbait da. Edukiz josi behar dugu. Guretzako, euskal feministontzat, sexualitate askea (horrela deitu nahi baldin badugu) zer da?

Asko da eztabaidatu beharrekoa. Etengabeko lana da. Horregatik tranpa litzateke, “sexualitate askea” errebindikatzea eta lasai gelditzea. Ezin baitugu ukatu “Aske” kontzeptua esanahi eta ideologiaz beterik dagoela baina era berean difusoa da, eta ezer ez esatea bezala izan daiteke. Kontzeptu oso zabala denez, edukiz bete beharko genuke.

Ezin dugu ahaztu, sexualitateak beti erantzuten diola testuinguru sozial, ekonomiko, politiko zein historiko bati. Testuinguru honetatik jaiotzen da forma zehatz batekin, muga zorrotz edo malguagoekin baina betiere forma zehatzarekin eta zilegitzat eta naturalizat hartutako praktikekin. Horrela eredu sozial, ekonomiko, politiko eta historikoa iraunarazi egiten du.

Naturalizat dugun eredu hori praktikatzen gabiltzan bitartean, sistema iraunarazten doa. Naturalizat eta pribatizat daukagun hori eztabaidatzeko eta konpartitzeko zailtasunek, eredu heterosexista hegemonikoa eraldatzeko aukerak urrundu egiten dizkigute. Horregatik, “pribatua politikoa da” leloa berreskuratzea ezinbestekoa zaigu feministoi.

Hortaz, sexualitateari duen garrantzi politikoa emateko gai izan beharko ginateke. Hemen eta orain. Etengabe. Beraz, gure helburuetako bat, sexualitateari, ekonomiak edo beste egiturek, duten izaera politikoa ematea izango da.

Izan ere, nola ez atzeman ekonomiarekin, kasu honetan, kapitalismoarekin, duen harreman zuzena? Sexualitateak lotura zuzena du beste jendarte egiturekin eta lotura horrek pertsonen bizitzaren alderdi ezberdinak baldintzatzen ditu: harremanak, familiaren definizioak, ugalketa politikak, etxebizitzak, edertasun ereduak, lanaren sexu banaketa, praktika batzuen kriminalizazioa...

## Baina zer da sexualitatea?

Ez dugu osoa iruditzen zaigun definizioz topatu. Izan ere, oso konplikatu da definitzea. Halere, badago errepikatzen den, eta ezinbesteko egiten zaigun elementu bat: plazera. Gure ustez, plazera litzateke motorra. Ikuspegi desberdinetan topatu dezakegun elementua da sexualitateaz mintzatzean.

Sexualitatearen definizioa, eztabaidatu beharrekoa da. Guk abiapuntu gisa proposatzen dugun definizioa hau da: Sexualitatea, plazeraren kudeaketa litzateke. Kudeaketa hau nolakoa den, ze arau dituen, arauak nola eraikitzen diren eta ze baliore emanen zaizkion... zehaztu beharko genituzkeen. Eta guk Bilgune Feministatik, **plazeraren kudeaketa hori ezinbestean feminista izan behar dela** azpimarratzen dugu.

Hona hemen definizio hori osatzeko ezinbestekoak ditugun hainbat elementu. Ez daude itxiak, eztabaidarako, hausnarketarako proposatuak baizik.


**-Praktika sexualak edo erotika:** Hainbat praktikek osatzen dute gure erotikak. Modu desberdin asko dago sexua praktikatzeko, horregatik eredu hegemonikoa gaingaitzen duten adibideen beharra dago. Diskurtsoetatik harago. Praktikei statusa emanez, guztiei kategoriatik *sexuala* emanez. Praktika sexual zeri deitzen diogun mugatua da, zergatik ez marko hori zabaldu? Akaso, plazera ematen duen oro, praktika sexuala izan daiteke. Ala ez.

Genitalak abiapuntu eta helmuga izan gabe eta hauetatik harago doan ikuspegi zabalago bat aintzat hartuz, eredu heteropatriarkal koito-zentrikoa gaingaitu beharra dago. Koitoa beste praktika bat gehiago besterik ez da. PLAZERA eta DESIRA abiapuntu eta helmuga izango lirateke.



“Guk abiapuntu gisa proposatzen dugun definizioa hau da: Sexualitatea, plazeraren kudeaketa litzateke”

“Forma desberdinak ditu momentu eta pertsonen arabera. Forma anitzak, praktika anitzak (desioa, muxuak, begiradak, hurbiltasuna...)”



**2- Tendentzien zilegitasuna eta zilegitasun eza aztertzearen beharra:** Sexualitatearen eredu hegemonikoa sakratutzat jo eta hori ez den beste adibide batzuen praktikaren kriminalizazioa gainditu beharra dago. Adibidez, pornoa bere osotasunean baztertu beharrean (feminismo batzuetatik egiten den moduan), guri gustatzen zaizkigun sekuentziak asmatu eta pornoa birdefinitu beharko genuke baztertu beharrean. Izan ere sekulako tresna da iruditegi kolektiboetan eragiteko.

Atal honetan ere egongo lirateke BDSM bezalako praktikak, edo adin ezberdinen arteko sexua harremanen zilegitasun eza. Tendentzia zein praktika hauek (puntuak izan daitezkeelako) duten bazterketaren zergatia aztertu, ondoren eraldatzeko.

- Sexualitatea pertsona oroengana, bizi ziklo guztian zehar presente dagoen elementua da. **Forma desberdinak ditu momentu eta pertsonen arabera. Forma anitzak, praktika anitzak** (desioa, muxuak, begiradak, hurbiltasuna...).

Aldakorra da bizitza prozesu guztian zehar. Plazeraren kudeaketa hori aldatzen doa testuinguruaren eraginez; pertsona batek plazera modu desberdinetan jasotzen du bizi zikloan zehar. Sexu partekatua izateko gogoak ere egoeren arabera aldagarriak direla ezin ukatu. Honekin ez dugu esan nahi adin tarte bakoitzak elementu batzuk erantsita dituenik. Inondik inora. Ez dugu uste eskema hori existitzen



denik. Aldiz, bizitza egoerak aldagarriak diren bezalaxe, sexualitatea bizitzeko eta plazera lortzeko moduak, aldagarriak dira.

- Sexualitate bakar batetik (eredu bat eta bakarra balego), **sexualitateaK** (plurala) kontzeptura igaro beharra. Emakume bakar bat ere ez da berdina. Sexualitateak ere ezin dira izan.
- Sexualitatea harreman mota desberdinetan presente dagoen elementua da (lagunen artean, animalia, ama eta umeen artekoan, pertsona eta objektuen artean, gure buruekin...), sexuatuak baikara, horrek dakarren guztia erekin.
- Hainbat praktika sexuak, gaixotasunen kutsatzea eta haurdun gelditzea ekar dezakete. Honen aurrean **hezkuntza, informazioa eta osasun baliabide egokiak** behar ditugu; baita norbere buruaren ezagutza ezinbestekoa da ere. Osasunaren, ugalketa gaitasunaren eta plazeraren jabe izateko.

“ Hezkuntza, informazioa eta osasun baliabide egokiak behar ditugu; baita norbere buruaren ezagutza ezinbestekoa da ere. Osasunaren, ugalketa gaitasunaren eta plazeraren jabe izateko ”

“Gustura bizitzeak sexualitatearen bizipenak positiboagoak izaten lagunduko digu, horretarako gure gorputzen zaintza oinarritzkoa izango da”

- Naturalizazioa indartzen duen elementuetako bat **gorputza eta desioa ulertzeko moduan** datza. Gorputza eta buruaren arteko dikotomia horrek burua arrazionalizat eta gorputza fisiologikotzat ulertzen du, beraien arteko harremana ukatuz. Sexualitatea alde fisiologikora mugatzean, pentsatzeko zein hautatzeko gaitasuna desagerrarazten da. Guk pertsona bere osotasunean ulertzen dugu. Gure desioak, gustuak, inpulsoak eta gogoak, ez dira prozesu fisiologiko baten ondorioa soilik, gure kontzientziak eta ideologiak eraikitzen dituzte. Beraz, erabakitzeko eta hautatzeko gaitasuna dugu.
- Emakumeok gure gorputzekin gustura bizitzea: Autoestimu pertsonala indartzea, osasuna zaintzeko oinarritzko baldintza den aldetik. Gure gorputza onartu, balioetsi eta zaintzeko baliabide pertsonalak garatu behar ditugu emakumeok. Gustura bizitzeak sexualitatearen bizipenak positiboagoak izaten lagunduko digu, horretarako gure gorputzen zaintza oinarritzkoa izango da.

**Norbanakoaren zaintza** oinarritzkoa izango da. Zaintza kontzeptua ere eraikuntza sozial bat da baina zenbait gako ematearren, irizpide hauen arabera izan daitekeelakoan gaude: norberaren auto-ezagutzatik abiatuta osasuntsu egotea, norberaren gorputzaren ezagutza eta onarpena, edertasun eredu hegemonikoarekiko jarrera kritikoa mantentzea, norberak bere erotika piztea eta sustatzea, zenbait sexu praktiketan geure burua babestea (gaixotasunak eta haurdunaldiak ekidin ahal izateko, norbanakoaren nahiak eta beharrak ezagutzea eta errespetatzea, denbora norbanakoari eskaintzea, mimatzea, guretzako goxoak diren gauzak gure buruari eskaintzea errudun sentitu gabe...

**Eta guzti hau, bidean topatzen ditugun beste horrenbeste puntuekin, gure esperientzietatik garraiatu beharko dugu benetako eraldaketa sozial baten zain baldin bagaude. Pertsonala politikoa da pentsatu, esan eta egin. Ez dadila diskurtso polit batean gelditu. Gure praktikak eta gure bizitzak dira ezbaian daudenak. Ezin dugu beste aldera begira, gutako bakoitzari dagokigu eraldaketa.**

**Saia gaitzen txostenetatik gure praktiketara egon daitekeen amildegi horretan zubiak eraikitzen.**



## Bibliografía

BURGOS, Elvira eta PIÑERO, Arantxa: “El deseo lesbiano como potencia feminista” IN Jornadas feministas estatales: Granada, treinta años después. 2009.

COLECTIVO MA COLÈRE: *Mi cuerpo es un campo de batalla*. Ediciones La Burbuja. 2004

ESTEBAN, Mari Luz: “Cuerpos y políticas feministas” IN Jornadas feministas estatales: Granada, treinta años después. 2009.

FAUSTO-STERLING, Anne: *Cuerpos sexuados*. Melusina. 2006

FAUSTO-STERLING, Anne: *Los cinco sexos*. IN Jose Antonio Nieto, *Transexualidad, transgenerismo y cultura*. (pp. 79-86). Talasa ediciones.

FOUCAULT, Michel: *Historia de la sexualidad I: La voluntad del saber*. Siglo XXI. 1976.

HAINBAT AUTORE: *El eje del mal es heterosexual*. Traficantes de sueños. 2008.

JULIANO, Dolores: *Excluidas y marginales*. Cátedra. 2004

McROBBIE, Angela: “¿Las chicas arriba? Las mujeres jóvenes y el contrato sexual posfeminista ” (“Top Girls?” IN *Cultural Studies*, 21: 4-5 zbkia, uztaila/iraila 2007, pp. 718-37. testuko itzulpena)

OSBORNE, Raquel. *La construcción sexual de la realidad*. CATEDRA. 2002

PRECIADO, Beatriz: *Manifiesto contrasexual*. Opera prima. 2002.

RUBIN, Gayle: Reflexionando sobre el sexo: Notas para una teoría radical de la sexualidad. IN Carole Vance, *Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina*. (pp. 113-190). Editorial Revolución. 1989.

TRUJILLO, Gracia: *Deseo y resistencia*. Editorial EGALES. 2008.

VIÑUALES, Olga: *Identidades lésbicas*. Bellaterra. 2006.

VIÑUALES, Olga eta GUASCH, Oscar: *Sexualidades. Diversidad y control social*. Ediciones Bellaterra. 2003

WITTING, Monique: *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*. Editorial EGALES. 2006.

ZIGA, Itziar: *Sexual Herria*. Txalaparta. 2011

# Pelikulak, dokumentalak



## **XXY.**

Lucia Puenzo.

2007 (126 minutu)



## **Fake Orgasm.**

2010. (80 minutu)

Iturria: <http://vimeo.com/51477061>



## **Dirty Diaries.**

Mia Enberg.

2010.



## **El clitoris, ese gran desconocido.**

Michèle Dominici.

2003. (59 minutu)